

DIRULAGUNTZA PROGRAMEN OINARRI ESPEZIFIKOAK**3 LERROA: BANAKAKO EDO BINAKAKO KIROLARIENTZAKO DIRULAGUNTZA PROGRAMAK**

Dirulaguntza programa honetara bideratutako zenbatekoa: 20.000€

1.- XEDAPEN OROKORRAK	2
2.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA	2
3.-ONURADUNAK	3
4.- ESKAERA EGITEKO EPEA	3
5.-AURKEZTUTAKO ESKABIDEKO AKATSAK ZUZENTZEA	3
6.- ESKABIDEAK ONARTZEA	3
7.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK	4
8.- EMATEKO PROZEDURA	6
9.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA	6

1.- XEDAPEN OROKORRAK

Dirulaguntzen programaren helburua banakako kirolarien jarduera garatzen laguntzea da. Nazioarteko federazioen eta/edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan jasotako lehiaketetarako sarbidea errazteko, eta kirolariak kirol-elitera igarotzeko beharrezko urrats gisa, Bizkaiko kirolarien gastuen zati bat finantzatu nahi da, baldin eta banakako edo binakako lehiaketan kirol-proba ofizialetan parte hartzen badute.

Dirulaguntza jasoko dute Bizkaiko kirolariek beren gain hartu behar izan dituzten inskripzio-, egonaldi-, joan-etorri- eta mantenu-gastuek, baldin eta nazioarteko federazioen eta/edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan jasotako kirol-probetan banakako edo binakako lehiaketan parte hartzen badute.

Diruz lagunduko dira, halaber, entrenatzaile-lanak egiten dituen laguntzaile bati dagokionez kirolariek beren gain hartutako gastuak eta ordainsariak, baldin eta proba egiteko unean indarrean dagoen lizentzia badu diruz lagundutako probari dagokion diziplinan jarduteko.

Probak haur, kadete, gazte, junior, absolutu edo senior mailakoak izango dira.

2.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Programa honetarako 20.000€ erabiliko dira, eta horietatik 5.000€ dibertsitate funtzionala duten kirolarientzat izango dira. Aipatutako gastuak inskripzioari, egonaldiari, joan-etorriei eta mantenuari dagozkie.

Laguntza ekonomikoa kuantifikatzeko eta emateko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Goi-mailako banakako kirolari izaera (CSD/Basque Team/Promesa Bizkaiko Foru Aldundia zerrendan) edo nazioarteko ospe handiko probetan parte hartzen dutenak, edo estatuko, autonomia-erkidegoko edo lurraldeko lehiaketetan parte hartzen duten banakako kirolari izaera.
- Kirol-historia laburra.
- Kirol-txapelketetan parte hartzea eta lortutako emaitzak (2026. urtea)
- Kirol-proiektua (2025/2026)

Kirol Zerbitzuko teknikariek, eskatzaile bakoitzak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta kirolari bakoitzarenarekin alderatu ondoren, dirulaguntzen proposamen bat egingo dute eskatzaile bakoitzarentzat. Teknikari horiei kirol bakoitzeko espezialisten

aholkularitza eman ahal izango zaie, bereziki kasuan kasuko kirol-federazioetako kideena.

3.-ONURADUNAK

Dirulaguntza hauek jaso ditzaketen pertsona fisiko onuradunek (kirolari indibidualek) honako betebeharrak izango dituzte:

- Bilbon jaioa izatea edo Bilbon erroldatuta egotea, gutxienez bi urteko antzinatasunarekin.
- Edozein kirol-espezialitatetako banaka edo binakako modalitateko lehiaketa-kirola egitea.
- Lurraldeko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko kirol-txapelketetan parte hartzea, eta lortutako emaitzak baloratzea. (2026. URTEA)

4.- ESKAERA EGITEKO EPEA

Epea, deialdi hau BAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala) eta 2026ko urriaren 8ra arte, egun hori barne.

5.-AURKEZTUTAKO ESKABIDEKO AKATSAK ZUZENTZEA

Eskaera:

- Ez dago ondo beteta.
- Dokumentazioa falta da.

Bilbao Kirolak-ek pertsona fisikoari abisatuko dio eskabideko akatsak zuzentzeko. 10 egun balioduneko epea izango du horretarako, abisua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, Bilbao Kirolak-ek eskaera atzera botako du.

6.- ESKABIDEAK ONARTZEA

Eskaera atzera botako da, baldin eta:

- Ez du jardueraren memoria aurkezten puntuazio-irizpideetan adierazitako eskemari eta aldagaiei jarraituz.

- Ez ditu betetzen webgune korporatiboan zehaztutako Bilbao Kirolak ildo estrategikoak: www.bilbaokirolak.eus

7.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean esleituko dira.

Laguntza ekonomikoa kuantifikatzeko eta emateko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Goi-mailako banakako kirolari izaera (CSD/Basque Team/Promesa Bizkaiko Foru Aldundia zerrendan) edo nazioarteko ospe handiko probetan parte hartzen dutenak, edo estatuko, autonomia-erkidegoko edo lurraldeko lehiaketetan parte hartzen duten banakako kirolari izaera.
- Kirol-historia laburra.
- Kirol-txapelketetan parte hartzea eta lortutako emaitzak (2025/2026 urtea)
- Kirol-proiektua (2025/2026)

Kirol Zerbitzuko teknikariek, eskatzaile bakoitzak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta kirolari bakoitzarenarekin alderatu ondoren, dirulaguntzen proposamen bat egingo dute eskatzaile bakoitzarentzat. Teknikari horiei kirol bakoitzeko espezialisten aholkularitza eman ahal izango zaie, bereziki kasuan kasuko kirol-federazioetako kideena.

Atal honetan, Bilbao Kirolak erakundeak ezarritako irizpideen arabera kirol-programen antolaketan koordinatu behar diren hainbat faktore baloratzen dira. Justifikazio-programak/-memoriak eskaerarekin batera entregatu behar dira, eta puntuazio-irizpideak osatzen dituzten faktoreen ordenari jarraituz egituratu behar dira.

Gehieneko puntuazioa 75 puntukoa izango da, honela banatuta:

- 1) Kirol-lorpenengatik lortutako puntuak. Gehienez 35 puntu

Dirulaguntzen oinarriak argitaratzen ari diren urteko lehiaketa-maila baloratuko da, eta puntuaziorik handiena lortu duen parte-hartzea hartuko da kontuan; puntuazio horiek ez dira metagarriak izango.

Honako azpi-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Errendimendu handiko kirolaria edo CSDko maila edo BASQUE TEAMeko goi-mailako kirolaria edo goi-mailako kirolaria izatea Bizkaiko Foru Aldundiaren proba-zerrendan, edo nazioarteko ospe handiko probetan parte hartzen duen kirolaria izatea. (Maila handieneko balorazioa bakarrik baloratuko da). 10 puntu gehienez.

KIROLARIEN BALDINTZAK	
Errendimendu handiko kirolaria CSD/ BASQUE TEAM	10
Nazioarteko ospe handiko probetan parte hartzen duen kirolaria	10
Goi-mailako kirolaria Bizkaiko Foru Aldundiaren proba-zerrendan	5

- b) Kirol-historia laburra. Nazioarteko, estatuko edo autonomia-erkidegoko lehiaketetan parte hartu izana islatuko da. (Lorpenik onena bakarrik baloratuko da, 25 puntu gehienez)

LORPENAREN BALORAZIOA	LEHIAKETAREN LURRALDE EREMUA											
	Nazioarteko lehiaketa				Estatu mailako lehiaketa				Erkidegoko lehiaketa			
	1º	2º	3º	Parte hartzea	1º	2º	3º	Parte hartzea	1º	2º	3º	Parte hartzea
POSTUA	25	20	15	5	15	10	8	5	10	8	5	2

- 2) Kirol-proiektu bakoitzeko lortutako puntuak. Gehienez 40 puntu.

Azpi-irizpide hauek baloratuko dira:

- Kirola egitea sustatzen duten ekimenak: hitzaldiak, eztabaidak, prestakuntza eta banakako kirolarien presentzia foroetan. Gehienez 15 puntu. Balorazio-kontzeptuak egin izana egiaztatu beharko da; hala egin ezean, 0 puntu emango zaizkio.
- Bilbo hiriaren sustapena. 10 puntu gehienez. Argazkien eta kartelen bidez egiaztatu beharko da (Bilboko "B" logoa baldin badago, Bilbao Kirolak-en eskatu ahal izango da).

- Lehiaketetara joateak kirolariei eragiten dizkien gastuak ordaintzeko laguntza, betiere beste erakunde batzuek ordaindu ez badituzte (federazioak, COE, etab.). Gehienez 15 puntu.

8.- EMATEKO PROZEDURA

- Dirulaguntza guztien batura ez da 20.000 €-tik gorakoa izango.
- Aurkeztutako eskabideak elkarren artean alderatuko dira lehentasunak ezartzeko.
- Puntuei ehuneko jakin bat esleituz kalkulatu da eman beharreko zenbatekoa, honela:

Puntuak	Eskatutako ehunekoa
75	100%
65	86,66%
55	73,33%
.....	
.....	
Horrela hurrenez hurren	

- Ehunekoa dirulaguntza gisa eskatu den zenbatekoari aplikatuko zaio.
- Dirulaguntza ezin izango da eskatutako kopurua baino handiagoa izan.
- Kirolari bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 3.500 €-tik gorakoa ez bada.

9.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

- Gastuaren % 100 justifikatu eta ordaindu beharko da.
- Banakako kirolariek honako hauek aurkeztuko dituzte:
 - Denboraldiaren amaierako memoria, helburua eta etorkizuneko proiektuak nola bete diren zehaztuz.
 - Ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
 - Federazioaren dirulaguntzarik jasotzen ez duen joan-etorri ofizialen justifikazioa.

- Ordainketa egin dela egiaztatzen duten agiriak:
 - Programaren epearen barruan
 - Gastu osoaren arabera.
 - Inprimaki ofiziala beteta (FAKTUREN ZERRENDATA-LABURPENA, 4. ERANSKINA)
 - Aurkeztutako fakturen ordainagiriak
- Bilboko Udaleko Kirol Zerbitzuak hala eskatzen duenean eman beharko dute laguntza eta irudia.
- Aurkezteko epea: 2 hilabete, honako hauetatik aurrera:
 - Jardueraren amaiera-data (denboraldia amaitzean)
 - Dirulaguntzaren ordainketa-data, geroagokoa bada.
- Dokumentazioan akatsak egiaztatzea eta zuzentzea: Bilbao Kirolak-ek entregatutako dokumentazioa zuzena eta osoa dela berrikusiko du. Hala ez bada, idatzi bat bidaliko dio eskatzaileari, eta bertan:
 - Akatsa zuzentzeko eta/edo falta den dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.
 - Hala egiten ez badu, eskaera atzera botako dela adieraziko du.Eskatzaileak 10 egun natural izango ditu, abisua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko eta/edo dokumentazioa aurkezteko.
- Pertsona fisikoaren betebeharra: Dirulaguntza eskatu duen jarduera bete behar du. Edozein aldaketa gertatuz gero, aldez aurretik jakinarazi beharko dio Bilbao Kirolak-i.
- Penalizazioa: Onuradunak itzuli egin beharko ditu jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesa, baldin eta:
 - Ez du justifikatzen.
 - Justifikazioa ez da nahikoa.
 - Ez du betetzen dirulaguntza eskatu duen jarduera.